



2021eko ekainaren 30EAN UDALBATZAK IZANDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURA

BILDUTAKOAK:

ALKATEA: Unai Elkoro Oianguren.

BERTARATUAK: Karmele Uribarri Urresti, Xabier Ochoa Muñoz, Ainhoa Cabero Garcia, Koldo Zubillaga Beltran de Heredia, Alex Dietmar Walter Seiler, Fco. Javier Mar Medina, Mikel Uribeetxebarria Aldalur, Ion Albizu Gonzalez, Irati Pagoaga Zaloña, Jasone Garzia-Etxabe Lopez, Ione Ojea Ugarte eta Gorka Gabilondo Jauregi.

EZ BERTARATUAK:

KONTUHARTZAILEA: Begoña Arenaza Bengoa

IDAZKARIA: Fco. Javier Mendizabal Garate

Aretxabaletan, 2021eko ekainaren 30an, arratsaldeko sei eta erdiak direnean, goian aipatutako jaun-andreak elkartu dira Udaletxeko Udalbatzar Aretoan, bilkura egin eta deialdiaren aztergai zerrendan zehaztutako gaietaz buruz hitz egitearren.

1.- 2021IKIB0003 espedientea. Aretxabaletako Santakurtz kaleko eta inguruko beste kale batzuetako hornidura eta saneamendu-plan berezia. Aldatutako proiektuko obrak gauzatzea.

Alkateak jakinarazi du ez ohiko osoko bilkura deitu dela PEASaren proiektua lizitzatzeko. Xabier Ochoak gehitu du askotan aipatu dela aurrekontua, bi miloi eta hirurehun mila eurokoa. Gero, obra zuzendaritza aterako da. Obrak iraila bukaeran-urria hasieran hasiko dira. Obrak direla eta, behin behineko aparkalekua egingo da. Ion Albizuk esan du aurreko osoko bilkuran komentatu zutela eta kontsekuenteak izanez, abstenitu egingo direla bere garaian emandako arrazoientatik.

Xabier Ochoak dioenez, obra nahiko korapilotxoa izango da, eta anbulantzien edo suhiltzaileen beharra egonez gero bertara iristeko irisgarritasuna kontuan hartu da. Herritarrei pazientzia eskatu behar zaie.


Ondoren, bozketa egiten da eta EAJ/PNVko zazpi zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bilduko sei zinegotzien abstentzioarekin erabaki da:

LEHENA: Aretxabaletako Santakurtz kaleko eta inguruko beste kale batzuetako hornidura eta saneamendu plan bereziaren aldatutako proiektuan aurreikusitako lanak kontratatzeke espedientea onartu.

BIGARRENA: Kontratua arautuko duten administrazio klausula partikularren agiria onartu.

HIRUGARRENA: Kontratazio honi dagokion 2.334.849,50 euroko gastua baimendu 1.0101.601.450.00.01.2021 eta 5.0101.601.450.00.00.2022 partiden kontura.

LAUGARRENA: Lizitazioa ireki, kontratua prozedura ireki bidez esleitzeko, eta agintzea dagokion iragarkia argitara dadila kontratatzailearen profileen

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABXAR8.EPKa




2.- 2021IGBU0001 espedientea. Irati Pagoaga Zaloña zinegotziak kargua uztea.

Alkateak eskerrak ematen dizkio Irati Pagoagari. Zinegotzi lana esker gutxikoa dela dio eta bere alderdiaren partez bizitzan zorte onena opa dio. Irati Pagoagak esan du sei urtez aritu dela zinegotzi bezala eta aberasgarria izan dela, baina baita ere gogorra. Udaleko langileen prestutasuna eskertzen duela aipatu ondoren, zinegotzi guztiei eskerrak ematen dizkie eta berriak alboan izango duela. Ion Albizuk eskerrak ematen dizkio EH Bilduren partetik eta bere aldetik pertsonalki. Irati Pagoagak zinegotzi kargua uzten duenez, aho batez erabakitzen da:

LEHENA: Aretxabaletako EH Bilduko Irati Pagoaga Zaloña zinegotzi andreak kargua uzteko eskaeraren jakitun egonda, Hauteskunde Batzorde Zentralari Naiara Olabarria Bengoa andrearen eskaeraren berri eman, Hauteskunde Batzorde Zentralaren egiaztagiria udal honi bidali diezaion.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Hauteskunde Batzorde Zentralari jakinarazi udalak Irati Pagoaga Zaloña zinegotzi andrearen hutsunea bete ahal izateko.

Eta besterik ezean, aipatutako eguneko seirak eta hamar direnean bilera amaitu egin da, eta nik, idazkariak, bertan gertatutakoa egiaztatzen dut.

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABXAR8.EPKa